

Urkiolako parke naturalari I. itzulia

Urkiolako parke naturala

2019ko irailaren 21ean

18 urtetik gorakoak

Irteera Legution, 09:00etan.

72 kilometro, 2.400 metroko desnibelarekin



Araba Bike kirol klubak antolatu du, Vital Fundazioaren laguntzarekin, Urkiola parke naturaleko lehen itzuli hau. Parke espazio babestu bat da, Bizkaiaren eta Arabaren artean kokatuta dagoena.

Informazioa

Datorren irailaren 21ean hasiko da, Legution (Araba), Urkiola parke naturaleko lehen itzulia.

Ibilbide osoak, 72 kilometrokoak, bi luzapen ditu, 11 eta 6 kilometrokoak, hurrenez hurren. Lehenak (36. km) aukera emango du, hainbat bidezidor lotuz, Besaide ezagutzeko (puntu zehatz horretan batzen dira Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia). Bigarrena (64. km) igoera lasai bat da, Albertiako pagadien artetik doana, bidezidor leun eta azkarretan barrena. Ordu-tegi mugatua egongo da bi luzapenak hartzeko.

Horrez gain, luzapen horiek alde batera utzita, 50 kilometroko ibilbide bat egin daiteke, erritmo lasaiagoan.

Izena emateak

Izena 2019ko irailaren 5era arte eman ahal izango da, 24:00etara arte. 400 plaza daude.

Izen ematearen prezioa honako daten arabera izango da:

- 2019ko uztailaren 31ra arte 28 eurokoa izango da federatuentzat, eta 30 eurokoa federatu GABEENTZAT.
- 2019ko abuztuaren etik 2019ko irailaren 5era arte 35 eurokoa izango da federatuentzat, eta 37 eurokoa federatu GABEENTZAT.
- Probaren egunean bertan ezingo da izenik eman.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izen emateko, jo hona: vueltaaurkiola.tk